

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2022ko urria

Aurkibidea

1. Aurreikuspen berriak
2. Gizarte Segurantzako afiliazioa
3. Langabezia erregistratua
4. KPI
5. PMI konposatua
6. ELGaren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,1 haziko da 2023an.

Aurreko agertokiaren aldean, bi puntuko zuzenketa egin da beherantz.

2. Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,8 hazi zen irailean.

Urte arteko gehikuntza tasa antzekoa da gizonen eta emakumeen artean.

3. Langabeziaren jaitsierak aurrera egin zuen irailean ere.

Langabeziaren murrizketa handiagoa izan zen gizonen artean.

4. KPIa bi hamarren apaldu zen abuztuan.

Argindarraren merkatzeak azaltzen du, neurri handi batean, bilakaera hori.

5. Euroguneko PMI konposatua berriro gutxitu zen irailean.

Alde handia dago Alemanian izandako jaitsieraren eta Frantziaren gorakada txikiaren artean.

6. Gerrak munduko susperraldia geldiarazi du.

ELGak beherantz berrikusi ditu 2023rako munduko aurreikuspen ekonomikoak.



EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


EAEko ekonomia %2,1 haziko da 2023an

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2023ko HAZKUNDEA

%2,1




Munduko ekonomia pandemiak eragindako gale-retatik suspertzen hasi zenean, inflazio handiak, Ukrainako gerrak areagotuta, eta Txinako ekonomia-aren dezelerazioak, zero covid politikaren ondorioz, jarduera ekonomikoa beherantz baldintzatzen dute berriz ere, hazkunde txikiagoko eta inflazio handiagoko norabide batean murgilduta baitago. Arrisku horien ondorioz, munduko erakunde nagusiek beherantz berrikusi behar izan dituzte 2022-2023 aldirako hazkunde aurreikuspenak.

Eskura dagoen koiunturako informazioarekin, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak bere taula makroekonomikoa ere berrikusi du, eta 2022rako hazkunde aurreikuspenak bi hamarren murriztu ditu, %4,3ra arte. Hala ere, doikuntzarik handiena 2023rako aurreikusitako hazkundean aplikatzen da, beheranzko bi puntutan berrikusi baita, %4,1etik egungo %2,1era. Hipotesiak 2023an pixkanaka gutxituko den inflazioa jasotzen du, eta horrela ez balitz, ekonomian eragindako kaltea areagotuko litzateke.


AZKEN KONTSUMOA

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Etorkizunari buruzko ziurgabetasunak eta prezioen etengabeko gorakadak familien erosteko ahalmena murriztuko du, eta, beraz, kontsumoa %1,5 soilik handituko dela eta kapitalaren eraketa gordinaren gehikuntza %2,9ra mugarituko dela aurreikusten da, nahiz eta botila lepoak murriztuko diren. Hori dela eta, barne eskariaren bultzada txikiagoa aurreikusten da, eta horren osagarri, kanpo sektorearen ekarpen eskasa izango da, hiru hamarren baino ez, esportazioen dinamismo txikiagoak baldintzatuta. Eskaintzari dagokionez, eraikuntzaren arloak bakarrik lortuko ditu 2022an jasotakoak baino erregistro altuagoak.

Lan merkatuan, azkenik, lanaldi osoko lanpostuen kopurua %1,2 haziko da eta langabezia tasa %8,3ra jaitsiko da.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Ehunekoak



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,8 hazi zen irailean


Gizarte Segurantzako afiliazioak %1,8 egin zuen gora irailean, 2021eko hilabete berarekin alderatuta. Aldakuntza tasa hori aurreko bi hilabeteetan izandakoaren antzekoa da. Beraz, estatistika honen hazkunde erritmoan nolabaiteko egonkortasuna hautematen da. Afiliazioen kopurua 17.415 afiliaziotan handitu zen urte arteko tasan eta 975.890tan kokatu zen.

Aldakuntza tasa antzekoa izan zen bi generoetan. Hala, emakumeen artean %1,9ko igoera lortu zen, eta gizonen artean %1,8koa. Azken kasu horretan, erritmoa zertxobait bizkortu da aurreko bi hilabeteekin alderatuta. Guztira, ia 513.000 afiliazio gizonenak dira eta 463.000 baino gehixeago emakumeenak. Hala, banaketa %53koa eta %47koa da sexu bakoitzerako.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

IRAILEKO AFILIAZIOA
%1,8




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




AFILIAZIOA INDUSTRIAN

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioaren hazkundera nabarmen handiagoa da zerbitzuetan, urte arteko % 2,0ko tasa jaso baitute. Industrian eta eraikuntzan, aldiz, %0,9 eta %1,4 izan dira, hurrenez hurren, eskuratu-tako tasak. Kopuruz, hazkunderik handienak lortu dituzten jarduerak ostalaritza (ia 3.500 afiliazio berri), hezkuntza (2.500 baino gehiago)

eta jarduera profesionalak (2.000 inguru) izan dira. Aitzitik, deigarria da merkataritzan izandako jaitsiera (926 afiliazio gutxiago). Halaber, finantza jarduerak plantillak doitzen jarraitzen dute eta 259 afiliazio gutxiago izan dituzte, etxeko langileen artean jaso den antzeko kopurua baita.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK.

	2021eko iraila	2022ko iraila	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	958.475	975.890	17.415
Industria manufakturagileak	170.382	171.977	1.595
Merkataritza	135.340	134.413	-926
Osasun arloko jarduera	111.700	112.393	693
Administrazio jarduerak	68.648	70.244	1.595
Hezkuntza	66.276	68.846	2.570
Ostalaritza	62.286	65.744	3.458
Lanbide jarduerak	57.901	59.860	1.959
Eraikuntza	57.066	57.876	810
Administrazio publikoa	48.533	50.106	1.573
Garraioa	43.076	44.110	1.034
Etxeko langileak	28.931	28.697	-234
Bestelako zerbitzuak	25.590	25.827	237
Informazioa eta komunikazioa	24.232	25.350	1.119
Finantza jarduerak	16.981	16.722	-259
Jarduera artistikoak	15.450	16.551	1.102
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	13.067	14.098	1.030
Ur horniketa	6.646	6.592	-54
Higiezen jarduerak	4.176	4.282	106
Energia horniketak	1.574	1.572	-2
Erauzketa industriak	546	549	3
Lurraldez kanpoko erakundeak	74	81	7

Iturria: Gizarte Segurantza.



LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Langabeziaren jaitsierak aurrera egin zuen irailean ere

Lanbidek argitaratutako azken datuen arabera, irailean 111.680 langabe zeuden, 2008tik, hau da, Atzeraldi Handia gertatu zenetik, irail batean jaso den kopururik txikiena. Urte arteko aldakuntza tasetan ere beherakada nabarmena izan zen (-%6,5), eta horrek erakusten du Euskadik enpleguari eusteko eta berreskuratzeko gaita-


sun handia duela, pandemia, hornidura arazoak, energia prezioak eta Ukrainako gerra oztopo garrantzitsuak izan arren. Bilakaera positibo horri kontratu mugagabeen igoera gehitu behar zaio, guztizkoaren %31,2 osatzen baitute, urte hasieran indarrean sartu zen lan- rreformen ondorioek lagunduta.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa


LANGABEZIA ERREGISTRATUA. IRAILA

-%6,5




LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA. GAZTEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



Aurreko aldietan bezala, langabeziaren bilakae-
rak eragin negatiboagoa izan zuen emakumeen
artean oraindik ere. Hain zuzen ere, Lanbideren
bulegoetan izena eman duten pertsona guztie-
tatik 47.049 gizonezkoak dira eta 64.631 ema-
kumezkoak, eta azken hauen artean beheraka-
da txikiagoa izan da (-%9,1 eta -%4,6, hurrenez

LANGABEZIA. ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



hurren). Halaber, langabeziaren hobekuntza
eraikuntzaren sektorean eta gazteenetan zen-
tratu zen, %14,8 eta %15,0ko jaitsierekin, hu-
rrenez hurren. Gainerako sektoreek ere jaitsie-
rak jaso zituzten, baina zerbitzuen sektoreak
beheranzko joera nabarmen leundu zuen.

LANGABEAK

	2021eko iraila	2022ko iraila	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	119.492	111.680	-7.812
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	20.135	19.378	-757
Bizkaia	67.930	63.021	-4.909
Gipuzkoa	31.427	29.281	-2.146
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	51.736	47.049	-4.687
Emakumeak	67.756	64.631	-3.125
25 urtetik beherakoak	9.813	8.341	-1.472
25 urte baino gehiago dutenak	109.679	103.339	-6.340
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.311	2.006	-305
Industria	13.652	11.732	-1.920
Eraikuntza	7.863	6.699	-1.164
Zerbitzuak	80.487	78.280	-2.207
Lehenago lan egin dutenak	104.313	98.717	-5.596
Lehenago lan egin ez dutenak	15.179	12.963	-2.216
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	18.371	17.827	-544


Iturria: SEPE.

INFLAZIOA

KPIa bi hamarren apaldu zen abuztu

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Kontsumoko prezioen igoera bi hamarren moteldu zen abuztu eta %10,3an kokatu ziren, baina oraindik %10etik gora garestitzen jarraitzen dute. Beste behin ere, argindarraren eta elikagaien faktorek eragin zuten KPI indizea hain handia izatea, nahiz eta igoera uztailean baino txikiagoa izan zen, erregaiek izan zuten jaitsierari esker.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2020	2021	2022ko abuztua	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,1	3,1	10,3	10,3
Azpiko inflazioa (%79,5)	0,8	1,0	6,4	5,1
- Elikagai landuak (%15,8)	1,7	1,4	12,6	2,0
- Industria ondasunak (%22,7)	0,3	1,0	5,8	1,3
- Zerbitzuak (%41,0)	0,8	0,7	4,3	1,8
Hondar inflazioa (%20,5)	-4,0	12,1	25,8	5,2
- Landu gabeko janariak (%9,3)	4,0	2,6	12,7	1,1
- Energia (%11,2)	-9,4	21,3	37,0	4,1


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak



Erregaien prezioaren jaitsiera hori petrolioaren kotizazioaren bilakaerak eragin zuen; izan ere, urtariletik izan duen balio minimoetan kokatu zen, 93 dolarretik behera jaitsi baitzen. Garraio taldeak, etxebizitza, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak eta aisia atalekin batera, aldakuntza tasarik altuena izaten jarraitzen du. Hala eta guztiz ere, ekarpen nabarmena izan zuen KPIaren urte arteko tasaren jaitsieran, %14,8tik abuztuko %10,5era igaro baitzen, garraio publiko txartelei eman zaizkien hobariei esker.

Beste aldetik, etxebizitza izan zen inflazio handiena jaso zuen taldea, %25,9ko erregistrora iritsiz, elektrizitatearen garestitze nabarmenaren ondorioz. Era berean, elikagaiak biltzen dituen taldeak gero eta balio handiagoak eskuratzen jarraitu zuen (%13,5), eta turismoak, jatetxeek eta hotelek ere gora egin zuten, %7,4ko igoera izan zuen hotel, kafe eta jatetxeen taldeak eta %4,9ko igoera, berriz, aisialdi eta kulturak. Aitzitik, komunikazioak merkatu egin ziren aurreko urtearekin alderatuta.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2022ko abuztua

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	10,3	10,5	9,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	13,5	13,8	12,4
Edari alkoholodunak eta tabakoa	5,1	4,7	3,8
Jantziak eta oinetakoak	4,5	5,6	2,1
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	25,9	24,8	19,7
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	7,4	7,6	7,4
Osasuna	0,6	1,1	1,2
Garraioa	10,5	11,5	9,9
Komunikazioak	-2,2	-2,2	-0,7
Aisia eta kultura	4,9	4,1	4,8
Hezkuntza	1,5	1,2	-0,8
Jatetxeak eta hotelak	7,4	7,6	8,1
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,3	4,0	3,2

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

Euroguneko PMI konposatua berriro gutxitu zen irailean


Irailean, euroaren eremuko enpresa jarduerak berriz ere pixka bat okerrera egin zuen, PMI indize konposatuak emandako emaitzaren arabera. Izan ere, adierazle hori 48,2ra jaitsi zen hil horretan, abuztuko datua baino zazpi hamarren txikiagoa, eta uzurtze eremuan (50 puntutik behera) kokatu da argi eta garbi. Halaber, azken hogei hilabeteetako baliorik txikiena da abuztuan jasotakoa.

Bi sektore nagusiek beheranzko bilakaera kezagarria erakusten dute. Alde batetik, manufakturrak 46,2ra jaitsi dira, abuztuko datua baino hiru hamarren gutxiago; zerbitzuak, berriz, 48,9ra jaitsi dira. Beheranzko bilakaera hori ez da euroaren eremukoa bakarrik, mundu mailan ikusten baita. Horrela, abuztuan munduko ekonomiari buruzko indize konposatua 49,3 puntutan zegoen.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2022KO IRAILA


48,2




PMI KONPOSATUA. MUNDUA

2022KO ABUZTUA


49,3



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Europako herrialde handien artean, Alemaniaren beheranzko bilakaera ez dator bat Frantziako ekonomiak erakutsi duen gorakada arinarekin. Lehenengo kasuan, indizea 45,9an kokatu da, herrialdeko manufakturen bilakaera txarraren ondorioz, nahiz eta hornidura kateen hobekuntzak beherakada leundu duen. Frantzian, indizeak gora egin du 51,2ra arte, zerbitzuen hobekuntzari esker, nahiz eta manufakturek ahultasun handia erakutsi.

Europatik kanpo, gorakada garrantzitsua dago AEBetan (49,3), baina ez da nahikoa izan hedapen eremura itzultzeko. Japonia, ordea, badago eremu horretan.


PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit




ELGA-REN AURREIKUSPENAK

Gerrak munduko susperraldia geldiarazi du

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Pandemiaren ondoren, gerraren ondorioek eta birusaren agerraldi berrien etengabeko inpaktuek munduko toki batzuetan hazkundera murriztu dute, eta prezioei, batez ere energiari eta elikagaiei, presio gehigarri bat egin diete. Hala egiaztatu du ELGak aurreikuspen berrietan, non hazkunde txikiagoa eta inflazioaren hazkunde esanguratsua islatzen diren. Zehazkiago adierazita, %3,0an utzi du munduko BPGaren aurtengo hazkundearen kalkulua, eta sei hamarren murriztu du, ordea, 2023rako, %2,2ra arte.

ELGAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2021	2022	2023	2022	2023
Munduko ekonomia	5,8	3,0	2,2	0,0	-0,6
AEB	5,7	1,5	0,5	-1,0	-0,7
Eurogunea	5,2	3,1	0,3	-0,5	-1,3
Alemania	2,6	1,2	-0,7	-0,7	-2,4
Frantzia	6,8	2,6	0,6	+0,2	-0,8
Italia	6,6	3,4	0,4	+0,9	-0,8
Espainia	5,5	4,4	1,5	+0,3	-0,7
Erresuma Batua	7,4	3,4	0,0	+0,2	0,0
Kanada	4,5	3,4	1,5	-0,4	-1,1
Japonia	1,7	1,6	1,4	-0,1	-0,4
Txina	8,1	3,2	4,7	-1,2	-0,2
India	8,7	6,9	5,7	0,0	-0,5
Brasil	4,9	2,5	0,8	+1,9	-0,4


AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



FRANTZIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



Unerik txarrena 2023an iritsiko da. Alemania atzeraldian sartuko da bere ekonomia %0,7 uzkurtuz; Frantzia eta Italia %0,6 eta %0,4 haziko dira, hurrenez hurren; eta euroaren eremu osoa %0,3 baino ez da handituko. Europako ekonomia handien artean, Espainiakoa izango da gehien haziko dena 2022an eta 2023an, baina oraindik beste herrialde horien atzetik doa pandemiaren aurreko mailen susperraldian. Europako eremutik kanpo, aurreikuspenak ez dira hobeak; izan ere, Erresuma Batua (%0,0) eta AEBak (%0,5) geldituko direla aurreikusten da.

Krisi energetikoak eragindako ziurgabetasuna da ekonomia guztien faktore komuna. Erregai gutxi badago, batez ere gasa, 2023rako Europako hazkundera beste 1,25 puntu murriztu daiteke.

TXINAKO BPGA



Iturria: ELGA.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021			2022	
			II	III	IV	I	II
BPG	-9,6	5,9	19,1	4,7	4,9	5,8	5,0
Barneko azken kontsumoa	-8,9	5,2	15,9	2,9	3,8	2,6	1,5
Familien kontsumoa	-12,1	5,6	19,8	2,5	4,0	3,2	3,0
Administrazioaren kontsumoa	2,9	3,9	4,5	4,4	3,3	0,6	-3,1
Kapital eraketa gordina	-12,1	6,0	23,2	2,9	3,0	4,9	5,0
Barne eskaria	-9,7	5,4	17,5	2,9	3,6	3,2	2,4
Esportazioak	-15,9	12,7	29,6	13,6	13,5	13,5	13,7
Inportazioak	-15,8	11,6	28,1	12,6	9,3	10,4	8,5
Lehen arloa	-16,9	21,9	32,9	29,1	14,5	-1,7	-3,2
Industria eta energia	-12,2	6,1	27,2	2,4	3,7	6,5	6,1
Eraikuntza	-14,4	4,5	15,7	4,7	2,5	1,9	1,5
Zerbitzuak	-7,9	5,8	16,9	5,2	5,5	6,2	5,6
Balio erantsi gordina	-9,4	5,9	19,3	4,7	5,0	6,0	5,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-11,9	6,1	17,5	4,2	4,1	3,9	3,2
Enplegua	-6,2	5,9	16,2	5,1	5,0	4,9	3,7

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2022		2022	2023				2023
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	3,9	2,4	4,3	2,2	1,7	1,7	2,8	2,1
Barneko azken kontsumoa	1,6	1,2	1,8	1,3	1,3	1,3	1,7	1,5
Familien kontsumoa	2,5	2,0	2,7	1,3	1,1	1,2	1,7	1,4
Administrazioaren kontsumoa	-1,4	-1,5	-1,4	1,4	1,9	1,8	1,5	1,7
Kapital eraketa gordina	5,1	4,3	4,8	3,3	2,4	2,5	3,3	2,9
Barne eskariaren ekarpena	2,5	2,0	2,5	1,8	1,6	1,6	2,1	1,8
Kanpo eskariaren ekarpena	1,5	0,4	1,8	0,3	0,1	0,1	0,7	0,3
Lehen arloa	-6,3	-7,3	-4,6	-0,2	-11,3	-4,5	-2,0	-4,7
Industria	5,2	2,9	5,2	1,4	0,3	-0,3	-0,5	0,2
Eraikuntza	1,6	1,8	1,7	1,6	2,9	3,3	3,1	2,7
Zerbitzuak	4,2	2,8	4,7	2,9	2,7	3,0	2,9	2,9
Balio erantsi gordina	4,2	2,7	4,6	2,4	2,0	2,2	2,1	2,2
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,3	1,6	2,8	1,9	1,7	1,6	1,4	1,6
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	1,0	2,7	1,0	1,0	1,0	1,8	1,2
Landunak (BJA)	1,2	1,4	2,0	0,7	0,9	0,8	1,1	0,9

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023		2022	2023
Confebask	5,9	—	Laboral kutxa	3,6	2,7
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	4,3	2,7	BBVA	3,5	1,1
Ceprede	3,9	2,3			

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021			2022	
			II	III	IV	I	II
BPG	-11,3	5,5	17,9	4,2	6,6	6,7	6,8
Kontsumo pribatua	-12,4	6,0	23,8	4,0	4,6	3,5	2,5
Kontsumo publikoa	3,5	2,9	4,1	3,1	-0,1	-1,0	-2,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	-9,7	0,9	17,5	-3,0	-1,7	3,5	4,9
- Aktibo finko materialak	-11,1	0,1	19,8	-5,0	-3,4	2,6	4,4
- Eraikuntzan	-10,2	-3,7	9,5	-6,7	-3,9	-0,2	4,4
- Ekipamendu ondasunetan	-13,3	6,3	42,0	-3,0	-3,3	6,8	4,2
- Jabetza intelektualaren produktuak	-2,5	4,7	8,1	6,7	6,3	7,4	7,0
Nazio eskaria (ekarpena)	-9,1	5,2	17,7	3,8	4,9	3,8	1,9
Esportazioak	-19,9	14,4	40,5	15,2	16,4	19,9	23,1
Inportazioak	-14,9	13,9	40,8	14,3	11,6	12,2	8,8

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023		2022	2023
AFI	4,3	1,8	Mapfre Economics	4,1	1,9
BBVA	4,1	1,8	Oxford Economics	4,3	1,0
CaixaBank	4,2	2,4	Repsol	4,0	2,0
Merkataritza ganbera	4,1	2,2	Santander	4,3	1,4
CEEM-URJC	3,9	2,0	Metyis	3,8	1,4
CEPREDE-UAM	4,7	2,0	Universidad Loyola Andalucía	4,2	2,6
CEOE	4,3	1,5	Batez bestekoa	4,2	1,9
Equipo Económico (Ee)	4,3	1,9	Gobernua (2022-10)	4,4	2,1
EthiFinance Ratings	4,3	1,9	Espainiako Bankua (2022-06)	4,1	2,8
FUNCAS	4,2	2,0	Europar Batzordea (2022-07)	4,0	2,1
ICAE-UCM	4,2	2,2	NDF (2022-07)	4,0	2,0
IEE	3,9	1,2	ELGE (2022-09)	4,4	1,5
Intermoney	3,7	2,0	Consensus Forecast (2022-09)	4,3	1,6

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Merkataritza ganbera, CEEM-URJC, Equipo Económico (Ee), EthiFinance Ratings, ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021			2022	
			II	III	IV	I	II
AEB	-3,4	5,7	12,2	4,9	5,5	3,5	1,7
Txina	2,0	8,1	7,9	4,9	4,0	4,8	0,4
Japonia	-4,5	1,6	7,3	1,2	0,5	0,9	1,4
Kanada	-4,9	4,5	11,7	3,8	3,2	2,9	4,6
Europar Batasuna	-5,7	5,3	13,9	4,0	4,8	5,5	4,2
Eurogunea	-6,1	5,2	14,4	3,7	4,6	5,4	4,1
Alemania	-3,7	2,6	10,2	1,8	1,2	3,5	1,7
Frantzia	-7,8	6,8	18,6	3,6	5,0	4,7	4,2
Erresuma Batua	-9,3	7,4	24,5	6,9	6,6	8,7	2,9
Italia	-9,0	6,6	17,5	4,0	6,4	6,3	4,7
Herbehereak	-3,9	4,9	10,4	5,5	6,2	6,6	5,3

Iturria: Eurostat eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2022KO IRAILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
AEB	1,7	0,5	8,0	3,8	3,7	4,2
Japonia	1,5	1,5	2,2	1,4	2,6	2,5
Kanada	3,3	1,2	6,9	3,6	5,4	5,8
Europar Batasuna	3,0	0,7	8,1	5,0	—	—
Eurogunea	2,9	0,2	8,2	5,4	6,8	7,1
Alemania	1,4	-0,7	7,8	5,8	5,2	5,5
Frantzia	2,5	0,6	5,5	3,6	7,2	7,4
Erresuma Batua	3,4	-0,3	9,2	7,0	3,9	4,4
Italia	3,3	0,3	7,4	4,3	8,4	8,5
Espainia	4,3	1,6	8,8	4,1	—	—
Herbehereak	4,1	0,6	9,8	5,0	—	—

Iturria: Consensus Forecast.